

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

1373

44/2026 EBAZPENA, martxoaren 25ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Donostiako Udalarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmena, gazte-arlotik gazteen emantzipazioa bultzatzeko proiektu integral bat garatzeko, gazteen partaidetzarekin, trantsizio sozial eta demografikoko testuinguruan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak aipatu den lankidetzaz hitzarmena sinatu du, eta, behar bezalako publikotasuna emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Donostiako Udalarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmena, gazte-arlotik gazteen emantzipazioa bultzatzeko proiektu integral bat garatzeko, gazteen partaidetzarekin, trantsizio sozial eta demografikoko testuinguruan. Lankidetzaz hitzarmen hori ebazpen honen eranskin gisa agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 25a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN MARTXOAREN 25EKO 44/2026
EBAZPENARENA

LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO
OROKORRAREN ETA DONOSTIAKO UDALAREN ARTEKOA, GAZTERIAREN
ARLOTIK GAZTEEN EMANTZIPAZIOA BULTZATZEKO PROIEKTU INTEGRAL PILOTU
BAT GARATZEKO, GAZTEEN PARTE-HARTZEAREKIN, TRANTSIZIO SOZIAL ETA
DEMOGRAFIKOKO TESTUINGURU BATEAN

Donostian, sinadura elektronikoaren egunean.

Alde batetik, Nerea Melgosa Vega, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua izendatzeko lehendakariaren ekainaren 24ko 29/2024 Dekretuaren bidez izendatua, Gobernu Kontseiluak 2026ko martxoaren 3ko bilkuran hartutako erabakiak ematen dion ahalmenaz baliatuz.

Eta bestetik, Íñigo García Villanueva Donostiako Udaleko Inklusio, Aniztasun eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria (Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko urriaren 1eko erabakiaren bidez onartutako ordezkari), hitzarmen hau sinatzeko baimenduta dagoena Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko azaroaren 18(e)ko erabakiaren bidez.

Bi alderdiek behartzeko eta hitzartzeko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta

ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengoa.– Gazteriaren martxoaren 10eko 2/2022 Legearen (aurrerantzean, Gazteriaren Legea edo GL) 9.1.i).1 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari esleitzen dio emantzipaziorako informazio, dokumentazio, orientazio eta laguntzako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak hornitzea, bai eta Gazteria Sistemari sartzeko diren gainerako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak ere, edo pilotuak, gazteen emantzipazioa sustatzeko, biztanleria-sektore horretan espezializatuta dagoen eta Euskal Autonomia Erkidego osora iristen den eta bertan proiektatzen den politika baten esparruan, hargatik eragotzi gabe gainerako administrazioekin (foru- eta toki-administrazioekin) lankidetzan aritzeko aukera.

Bigarrena.– Gazteriaren Legearen 11.e) artikulua Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeak esleitzen die gazteen emantzipazioa bultzatzeko eginkizuna, bai udal-eremuan, bai udalaz gaindikoa eremuan, foru-aldundiekin eta gazteriaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailarekin koordinatuta, 9. artikuluan aurreikusitakoa betez.

Era berean, Euskadiko Toki Erakundeak buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.36 artikulua ezartzen du zer eskumen dituzten udalerriek gazte-politiken plangintzan, antolamenduan eta kudeaketan.

Hirugarrena.– Gazteen Legearen 23. artikulua Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarea sortzen du. Sare hori Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko 9.1.i).1 artikuluan aipatutako jarduera eta zerbitzuek osatzen dute, eta EAEko gainerako administrazio publikoek gazteen emantzipazioa bultzatzera bideratzen dituzte, biztanleria-sektore horretan espezializatutako politika baten esparruan eta beren eskumeneko eremu geografikoan.

Laugarrena.– Artikulu horrek Eusko Jaurlaritzan gazteriaren arloko eskumena duen sailari esleitzen dio: a) gazteen emantzipaziorako eta mugikortasunerako online zerbitzu bat bultzatzea, informazioa,

orientazioa, bitartekaritza, aholkularitza eta laguntza integral, jarraitu eta pertsonalizatua emateko, itzulera barne; b) aurrez aurreko arreta eskaintzen duten gazteen emantzipazio-zentroen sare bat sustatzea eta koordinatzea, Euskadiko Gazte Informazio eta Dokumentazio Sarearekin, Euskadiko Gazte Informazio eta Dokumentaziorako Zentro Koordinatzailearekin eta lurralde-zentroekin artikulatua; c) Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarea koordinatzea, zeinak gune birtual bat izango baitu gazteen emantzipazioaren inguruko ekosistema bat dinamizatzeke, sail arteko, erakunde arteko eta sektore arteko ikuspegiarekin, gazteak eremu horretako ekimenak dituzten sektore eta gizarte-eragile guztiekin konektatuz.

Era berean, laugarren apartatuak ezartzen du Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarearen esparruan, zeina Eusko Jaurlaritzan gazteriaren arloko eskumena duen sailak koordinatuko baitu, beste laguntza batzuk bultzatuko direla emantzipazioa errazten duten faktoreetan eragiteko, batez besteko emantzipazio-adina zenbat murriztu den ebaluatuz eta jardunbide egokiak sistematizatuz, emantzipaziorako politika eta laguntza espezifikoek buruzko ezagutza partekatua sortzeko.

Bosgarrena.– Gazteen Legearen 20.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzan gazteriaren arloko eskumena duen sailak gazteen mugikortasunari eta migrazioei buruzko programa bat bultzatuko du, eragina izango duena gazteen atxikipenean eta gazteen erakarpean, itzuleran eta konexioan, bertakoak izan edo ez, beste erkidego eta herrialde batzuetan.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailari esleitzen dizkio gazteriaren eta emantzipazioaren arloko egitekoak eta jardun-arloak.

Donostiako Udalak, bestalde, gazteentzako hainbat zerbitzu konektatuko ditu programa horrekin – besteak beste, gazteen bizi-ibilbideei laguntzeko aurrez aurreko zerbitzua – eta udal-eremuekin.

Seigarrena.– Donostiako Udalak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko interesa dute Donostian eta EAEn trantsizio sozial eta demografikoari erantzungo dioten gazte-politikak (trantsizio-politikak) hedatzeko proiektu pilotu batean lankidetzan aritzeko, esperientzia pilotuen ebaluaziotik abiatuta. Eta pilotua izango da, alde batetik, esperientzia osatuko duten zerbitzu eta programengatik, eta, bestetik, gazteria-sistematik emantzipazioa errazteko lan egingo delako, gazteen parte-hartzearekin.

Proiektu pilotu hau beste udalerrri batzuetan erabiltzeko moduko eredu eraginkorra sortzeko asmoz ezarriko da, testuinguru bakoitzera egokituta. Ikuspegi hori ere kontuan hartu da zerbitzuak eta programak diseinatzerakoan. Era berean, ekimen mota horrek Donostian duen eragina garrantzitsua da EAE osorako, Donostian bizi, lan egin edo ikasten duten gazte ugari baitaude.

Proiektuaren ezaugarri bereizgarriek, gainera, berrikuntza-laboretegi bihurtzen dute, trantsizioko gazteria-politikak diseinatu, hedatu eta ikusarazteko, gazteen emantzipazioa errazteko eta erronka demografikoari erantzuteko. Gainera, proiektua ebaluatu, sistematizatu eta mailakatuko denez, proiektio handiagoa izango du, eta bidea irekiko du Emantzipaziorako Euskal Sarearen diseinuan eta hedapenean aurrera egiteko.

Azaldutako guztiagatik, lankidetzaren hitzarmen hau sinatzea erabaki dute. Honako klausula hauek arautuko dute hitzarmena:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Xedea.

Hitzarmen honen xedea da Eusko Jaurlaritzak eta Donostiako Udalak proiektu integral pilotu bat abian jartzeko konpromisoa hartzeko baldintzak finkatzea. Proiektu hori Gazteriaren martxoaren

10eko 2/2022 Legearen (JL) 9. artikuluan 1.i).1 apartatuaren arabera eraten da, gazte-sistematik bertatik gazteen emantzipazioa bultzatuz eta gazteen parte-hartzearekin.

Proiektua Donostian bizi, ikasi edo lan egiten duten edo egin nahi duten 16-34 urteko gazteei zuzenduta dago – Gazteriaren Legearen 3.3 artikuluan zeharkako gazte-politikei buruz aurreikusitakoaren arabera, hala nola emantzipazio-politika –. Beraz, ikuspegi irekia eta eragin zabala izango ditu.

Proiektu pilotu hori Donostian ezarriko da, ebaluaziotik abiatuta eredu eraginkor bat sistematizatzeko, EAEko beste udalerrri batzuetan helburu berberak dituzten proiektuak diseinatzeko balioko duena, ebaluazio-, sistematizazio- eta eskalatze-prozesuen bidez, Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarea gero eta hobeto konfiguratzeko eta egituratzeko joateko, Gazteriaren Legearen 23. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Alde horretatik, proiektu honen helburua da ikaskuntza erabilgarriak ateratzea, beste udalerrri batzuentzat ere baliagarriak izango direnak, proiektu osoa eta zerbitzu edo programa pilotuak ebaluatuz, sistematizatuz eta mailakatuz. Donostiako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak partekatuko dituzte horiek guztiak.

Bigarrena.– Zerbitzuak eta programak.

Proiektuak zerbitzu eta programa hauek izango ditu:

– Gazteen bizi-ibilbideei laguntzeko aurrez aurreko zerbitzua, bi erakundeek lankidetzan sustatua eta Eusko Jaurlaritzaren GAZ (Gazte-ibilbideak Abiarazteko Zerbitzua) zerbitzuarekin artikulatua. Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarearen parte da zerbitzua, eta Eusko Jaurlaritzan gazteriaren arloko eskumena duen sailak koordinatzen du.

GAZek online zerbitzu bat eta espazio birtual bat antolatzen ditu, gazteen emantzipazioaren inguruko ekosistema bat dinamizatzeko, bai eta AMESLARIAK programa ere, mugikortasun- edo migrazio-proiektuak dituzten gazteen erakarpena, itzulera, atxikipena eta konexioa sustatzeko, hurrenez hurren 23. artikuluan (online zerbitzua eta espazio birtuala) eta 20. artikuluko 4. apartatuan (AMESLARIAK programa) aipatzen direnak.

Aurrez aurreko zerbitzua Kontadores Gazte Zentroan egongo da (Pasai San Pedro Hiribidea 13, 20017 Donostia, Gipuzkoa), eta Donostiako Udalak zerbitzuaren esku jarriko ditu gune horiek. Gune horietan, hitzarmen honetan aipatzen diren baliabideak jarriko dira eskuragarri, eta gazteen emantzipazioa sustatzeko jarduerak eta tailerrak ere egingo dira.

– Martx-Up: Donostiako 18 eta 30 urte bitarteko gazteen ideiak, erronkak eta proiektuak bultzatzeko eta abian jartzeko ekimena da, eta prestakuntza, laguntza eta baliabideak eskaintzen dizkie. Batez ere, haien ahalmen sortzaile eta berritzailea sustatu nahi da, bai eta hirian eragile aktibo eta sortzaile izaten lagundu ere.

– Laborategiak: eduki kulturalaz gain, gazteen interesak, beharrak eta kezkek ere kontuan hartuta proposatzen dira.

Laborategi horietan formatu desberdinak onartzen dira: ikastaroak, hitzaldiak, bilerak, espazioaren erabilera desberdinak, eta talde desberdinek proposatzen dituzten jarduera aniztatarako irekita egongo dira. Laborategi horiek areto desberdinetan emango dira, bakoitzaren formatuaren arabera (areto nagusia, tailerra, areto digitala...).

– Lagapenak: Kontadores sorkuntza- eta berrikuntza-proiektuak gauzatzeko bitarteko bat da. Horretarako, gazteen eskura jartzen ditu espazioa, materialak eta beste baliabide batzuk, eta erabiltzaileek kasu bakoitzean adostuko dute zer eskain dezaketzen zerbitzu horren ordain gisa.

– Parte-hartzea: programazioan beste eragile batzuek antolatutako eta sustatutako ekimenak sartzen dira, bai eta gazte-kolektiboek proposatutako ekimenen zabalkundea sustatzen dutenak ere. Besteak beste, lankidetzak, EGKrekin sinatutako hitzarmen baten esparruan.

Proiektu eta programa horiek guztiak Eusko Jaurlaritzarekin batera egingo dira, eta bi erakundeek finantzatuko dituzte, aurrekontuan aurreikusitakoaren arabera (ikus 1. eranskina).

Zerbitzu eta programen ezaugarriak, ekipamenduak eta Gazteriaren Udal Zerbitzuaren presentziari esker, Donostiako Udala berrikuntza-laborategia izango da Gazteriaren Legearen eta Gazteriaren Euskal Sistemaren helburuekin bat datozen politika berrietan: diseinua, garapena, ebaluazioa eta komunikazioa, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, bereziki gazteen emantzipazioaren eta mugikortasunaren arloan. Gainera, ebaluazioaren, sistematizazioaren eta eskalatzearen bidez, proiektuak EAE osorako baliozko proiektzioa izango du.

Gainera, programa eta zerbitzu horiek printzipio gidari hauen arabera antolatuko dira:

– Genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala:

• Zerbitzu eta programa guzti-guztiak genero-ikuspegian eta ikuspegi intersektionalean oinarritzen dira. Helburua da guztiak emantzipazio-prozesua baldintza berdinetan eramatea, generoa edozein dela ere, inolako diskriminazio-faktorarik eragin gabe eta, are gehiago, diskriminazio anizkoitza jasaten dutenei arreta ematen saiatuz.

– Belaunaldien arteko ikuspegia:

• Hemen jasotzen diren udal-zerbitzuak eta -programak gizarte-antolaketa erantzunkide eta solidario batera bideratuta daude, premia horri erantzuna eman nahian, belaunaldi guztiak kontuan hartuta: adibidez, elkarri laguntzeko jarduerak antolatuko dira (mentoretza gazte nagusiei laguntzea, gazte nagusiei laguntzea), eta belaunaldien arteko elkarrizketa eta topaketa erraztuko dira. Gainera, belaunaldien arteko ikuspegia hartzeak esan nahi du jarduera batzuk adina edozein dela ere diseinatuko direla, belaunaldi desberdinetako gazteek eta helduek parte har dezaten.

Proiektu pilotua osatzen duten zerbitzu eta programa berritzaile horiek elkarrekin lotuta daude:

– Kontadores Gazte Zentroan kokatuko dira fisikoki.

– Eusko Jaurlaritzarekin elkarrizketan eta lankidetzan garatuko dira, eta bi erakundeek batera finantzatuko dituzte, I. eranskinean (aurrekontua) aurreikusitakoaren arabera.

Zerbitzu eta programen ezaugarriak, ekipamenduak eta Udal Gazteria Zerbitzuaren presentziari esker, Donostiak berrikuntza-laborategi gisa jardungo du Gazteriaren Legearen eta Gazteriaren Euskal Sistemaren helburuekin bat datozen politika berrien diseinuan, garapenean, ebaluazioan eta komunikazioan, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, bereziki gazteen emantzipazioaren eta mugikortasunaren arloan. Gainera, ebaluazioaren, sistematizazioaren eta eskalatzearen bidez, proiektuak EAE osorako proiektzioa izango du.

Hirugarrena.– Izaera juridikoa.

1.– Hitzarmen honek izaera administratiboa du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo geratzen da.

2.– Hitzarmen honen interpretaziotik, ondorioetatik edo suntsiarazpenetik sor daitekeen edozein auzitarako, alderdiek hitzarmenean araututako Jarraipen Batzordearen mende jartzea adostu dute, baina, adostasunik ez badago, administrazioarekiko auzien jurisdikziora joko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako baldintzetan.

Laugarrena.– Eusko Jaurlaritzaren betebeharrak.

Eusko Jaurlaritzan gazteriaren arloko eskumena duen sailak betebeharrak hauek ditu:

- Donostiako Udalarekin koordinatzea hitzarmen hau gauzatzeko behar den guztian.
- Zerbitzu eta programa guztiak diseinatu, ebaluatu eta sistematizatzea, Donostiako Udalarekin lankidetzan. Jarduera horiek proiektu pilotua EAEko beste udalerrri batzuetara eramaten lagundu behar dute.
- Proiektuaren esku jartzea zerbitzuak eta programak gauzaten parte hartzeko behar diren baliabideak, II. eranskinean zehaztutako konpromiso programatikoen arabera. Eta, bereziki, gazteen emantzipazioari laguntzeko aurrez aurreko zerbitzua bultzatzea eta koordinatzea, zerbitzu hori emateko online zerbitzuekin artikulatuz eta Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarearen esparruko koordinazioa bere gain hartuz, Gazteriaren Legean aurreikusitako baldintzetan. Zehazki:

- Emantzipazioaren inguruan Eusko Jaurlaritzak garatutako online zerbitzua eta espazio birtuala (webgunea eta APPa) Donostiako Udalak bultzatutako aurrez aurreko zerbitzuarekin konektatzen direla ziurtatzea, zerbitzu horiek gazteentzako informazio-sarearekin konektatzen direla bermatzea, eta baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzea, taldeen arteko lankidetzaren sustatzea, prestakuntza- eta gainbegiratze-ekintza partekatutak barne, eta hartzaileei eta erabiltzaileei ematen zaaien arretaren koherentzia sustatzea.

- Donostiako Udalarekin batera, zerbitzuen eta programen jarraipena egitea, horiek guztiak hedatzen eta behar bezala gauzaten direla ziurtatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz, eta Jarraipen Batzordearen esku jartzea beharrezkoak diren memoriak, txostenak eta dokumentuak.

- Proiektua batera finantzatzea, bi alderdien konpromiso ekonomikoei buruzko klausulan eta I. eranskinean aurreikusitakoaren arabera.

- II. eranskinean deskribatutako programa bakoitzaren konpromiso espezifikoak betetzea.

Bosgarrena.– Donostiako Udalaren betebeharrak.

2.– Donostiako Udalaren betebeharrak dira:

- Eusko Jaurlaritzarekin koordinatzea hitzarmena gauzatzeko behar den guztian.
- Zerbitzuak eta programak diseinatzea, ebaluatzea eta sistematizatzea Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, kontuan hartuta haien diseinua, ebaluazioa eta beste udalerrri batzuetara bideratzea.
- Proiektua osatzen duten zerbitzu eta programa guztiak gauzatea, hitzarmen honetan eta Gazteen Legean aurreikusitakoaren arabera. Zehazki:
 - Aurrez aurreko zerbitzua emantzipazioko online zerbitzuarekin eta espazio birtualarekin (webgunea eta APPa) konektatzen dela ziurtatzea, bai eta Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarearekin (Eusko Jaurlaritzak koordinatua) eta gazteentzako informazio-sarearekin ere. Horretarako, baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzea eta taldeen arteko lankidetzaren bultzatuko da,

prestakuntza- eta gainbegiratze-ekintza partekatuak barne, bai eta hartzaileei eta erabiltzaileei ematen zaien arretaren koherentzia ere.

– Zerbitzu eta programa horiek gauzatzeko behar diren langileak eta ekipamenduak jartzea proiektuaren eskura, II. eranskinean zehaztutako programa-konpromiso espezifikoaren arabera.

– Lankidetzan, zerbitzuen eta programen jarraipena egitea, behar bezala hedatzen eta gauzatzeko zuzentzeko neurri egokiak hartuz.

– Jarraipen Batzordeari beharrezko memoriak, txostenak eta dokumentuak ematea, bai eta ekintzen gastuak justifikatzea ere, hala eskatzen zaienean.

– Proiektua batera finantzatzea, bi alderdien konpromiso ekonomikoari buruzko klausulan eta I. eranskinean aurreikusitakoaren arabera.

– II. eranskinean deskribatutako programa bakoitzaren konpromiso espezifikoak betetzea.

Seigarrena.– Koordinazio eta Jarraipen Batzordea.

1.– Koordinazio eta Jarraipen Batzordea sortzen da, alderdi sinatzaileen ordezkari hauek osatua:

- a) Eusko Jaurlaritzak izendatutako bi ordezkari; horietako bat batzordeburua izango da.
- b) Donostiako Udalak izendatutako 2 ordezkari.

Jarraipen Batzordea sei hilean behin bilduko da, edo beharrek hala eskatzen duten guztietan.

Jarraipen Batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen adituak eta teknikariak gonbidatu ahal izango ditu bileretara, aztergaiei buruzko aholkuak emateko Batzordeari.

2.– Koordinazio eta Jarraipen Batzordeak eskumen hauek izango ditu:

– Hitzarmenaren eta proiektuaren jarraipena egitea, honako alderdi hauek kontuan hartuta, besteak beste:

- helburu orokorrak eta operatiboak versus emaitzak;
- xede-biztanleria versus erabiltzaileak;
- jardueren programa eta egutegia versus programa gauzatzea;
- ezarpen-plana versus plana gauzatzea;
- beharrezko baliabideak, finantzaketa-plana, bi alderdien konpromisoak versus baliabideen erabilgarritasuna eta konpromisoak betetzea;
- gazteen komunikaziorako eta partaidetzarako aurreikusitako tresnak versus hedapena;
- aurreikusitako erakunde publiko eta pribatu laguntzaileak versus elkartuak.

– Lankidetzaren espazioak proposatu eta dinamizatzea, hitzarmenaren eta proiektuaren aurreikuspenak bultzatzeko eta, azken batean, Gazteriaren Legea hedatzeko.

– Hitzarmena interpretatzean eta betetzean sortzen diren arazoak konpontzea. Era berean, hitzarmenaren edozein aldaketa proposatzea alderdi sinatzaileei.

Akordioak ordezkaturako alderdi guztien adostasunez hartuko dira. Klausula honetan berariaz aurreikusi gabekoari dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko

40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. kapituluaren 3. atalean xedatutakoaren arabera arautuko da Batzordea, funtzionamenduari eta araubide juridikoari dagokienez.

Zazpigarrena.– Konpromiso ekonomikoak.

Programa garatzeko aurreikusitako gastu-aurrekontua 315.023,65 eurokoa da, eta % 51,48 (162.183,65 euro) Donostiako Udalak finantzatuko du, eta % 48,52 (152.840 euro) Eusko Jaurlaritzak, I. eranskinean (aurrekontua) zehazten den urteko banakapenaren arabera.

	Donostiako Udala	Eusko Jaurlaritza
2026	96.648,86 euro	97.870,00 euro
2027 (6 hilabete)	65.534,79 euro	54.970,00 euro

Eusko Jaurlaritzak urtero transferituko dizkio Donostiako Udalari hitzartutako zenbatekoak, eta udal horrek, era berean, hitzarmen hau sinatzean bere gain hartutako betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko kreditu nahikoa izango du bere aurrekontuetan.

Bi alderdiek kanpoko ekarpenak erabili ahal izango dituzte beren konpromiso ekonomikoak finantzatzeko. Ekarpen horiek ez dituzte hitzarmenaren baldintzak aldatuko proiekturen batean gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Gainfinantzaketa gertatuz gero, beste alderdiari jakinaraziko zaio eta jarraipen-batzordea bilduko da. Hitzarmena berrikusi ahal izango da, zortzigarren klausularen arabera.

Ekimenaren hurrengo izapidetzea arintzeko eta 2026ko eta 2027ko ekitaldiei dagokienez hitzarmen honetara lerro hauetan bideratutako baliabideak ahalik eta azkarren eskuragarri jarri ahal izateko, Ogasun eta Herri Administrazioaren sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan aurreikusitakoari heltzen zaio. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako gastu-espeditenteen aurretiazko izapidetzea arautzen da. Agindu horretan, espeditentea sinatu aurreko ekitaldian gauzatzeko aukera zehazten da, espeditentea sinatu aurreko unera arte ondorioak izango dituen, eta horiek emateko baldintza kreditu egokia eta nahikoa egotea izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko Aurrekontu Orokorrek eta hartzen diren konpromisoak indarrean jartzen direnean.

Zortzigarrena.– Aldatzeko araubidea.

Alderdietako edozeinek edozein unetan proposatu ahal izango du hitzarmena berrikustea, ego-kitzat jotzen dituen aldaketak egiteko.

Klausulak berrikusiz gero, dagozkion aldaketak hitzarmenari erantsi beharko zaizkio, alderdiek sinatuko duten gehigarri baten bidez.

Bederatzigarrena.– Hitzarmena azkentzea.

1.– Hitzarmena azkendu egingo da bere xedea osatzen duten jarduerak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoi hauetakoren bat dagoenean:

- a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea eta hura luzatzeko erabakirik ez hartzea.
- b) Alderdi sinatzaile guztiek aho batez hala erabakitzea.
- c) Alderdi sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Kasu horretan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio ez-betetzeari egin duen alderdiari, epe jakin batean bete ditzan bete gabekotzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori hitzarmenaren betearazpenaren jarraipen-, zaintza- eta kontrol-mekanismoaren arduradunari eta gainerako alderdi sinatzaileei jakinaraziko zaie. Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan ez-betetzeak irauten badu, errekerimendua igorri zuen alderdiak hitzarmena suntsiarazteko arrazoia jakinaraziko die alderdi sinatzaileei, eta hitzarmena suntsituztat joko da.

d) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzeko duen erabaki judiziala.

e) Parte hartzen duen alderdietako batek berriaz salatzea, indarraldia amaitu baino bi hilabete lehenago gutxienez.

Hamargarrena.– Indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den egunetik 2027ko ekainaren 30era arte egongo da indarrean, eta bi urtez luzatu ahal izango da.

Alderdietako edozeinek salatu ahal izango du berriaz hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

Egoitza elektronikoa, 2026ko martxoaren 12a.

Donostiako Udaleko Inklusio, Aniztasun eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria,
IÑIGO GARCÍA VILLANUEVA.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

2026ko martxoaren 30a, astelehena

I. ERANSKINA

AURREKONTUA

Gastuak	Donostiako udala		Eusko jaurlaritza	
	2026	2027 (6 hilabete)	2026	2027 (6 hilabete)
Gazteen emantzipaziorako bulegoaren zerbitzu presentziala				
Espazioa egokitzeko obrak	0,00 €	0,00 €	15.000,00 €	0,00 €
Altzariak eta ekipoak.	0,00 €	0,00 €	8.000,00 €	0,00 €
Mantentze-lanak	7.419,72 €	3.709,86 €	0,00 €	0,00 €
Zerbitzua abiarazteko komunikazioa	0,00 €	0,00 €	10.000,00 €	8.000,00 €
Zerbitzua ematen duten udal-langileak (2 pertsona, dedikazioaren %)	23.978,64 €	14.387,18 €	0,00 €	0,00 €
Orientatzaileak (lanaldi erdia)	27.777,50 €	16.665,33 €	0,00 €	0,00 €
Jardueren eta/edo zerbitzuen programa: tailerrak, bisitak, hitzaldiak, materiala, aholkularitza...	0,00 €	0,00 €	10.000,00 €	6.000,00 €
Programazioa diseinatu, garatu eta gauzatzea enpresa esleipendunaren bidez	9.000,00 €	5.400,00 €	0,00 €	0,00 €
Martx Up				
Proiektuen garapena	0,00 €	0,00 €	20.000,00 €	10.000,00 €
Formakuntza eta laguntza teknikoa	0,00 €	0,00 €	17.200,00 €	17.200,00 €
Komunikazioa	0,00 €	0,00 €	1.670,00 €	1.670,00 €
Zerbitzuaren zuzendaritzari atxikitako udal-langileak (dedikazioaren %)	15.982,00 €	15.982,00 €	0,00 €	0,00 €
Laborategiak				
Instalazioak egokitzea: altzariak eta materiala	0,00 €	0,00 €	2.000,00 €	1.200,00 €
Zerbitzuaren zuzendaritzari atxikitako udal-langileak (dedikazioaren %)	6.491,00 €	3.890,41,00 €	0,00 €	0,00 €
Programazio espezifiko bat diseinatu, garatu eta gauzatzea enpresa esleipendunaren bidez	6.000,00 €	5.500,00 €	2.000,00 €	1.500,00 €
Lagapenak				
Kontadoresen espazioak lagatzea proiektuak garatzeko	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Parte-hartzea				
Gazte-kolektiboekin ekimenak garatzea	0,00 €	0,00 €	9.000,00 €	5.400,00 €
Bestelako partaidetza-prozesuak eta lankidetzak	0,00 €	0,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
Guztira	96.648,86€	65.534,79 €	97.870,00 €	54.970,00 €

II. ERANSKINA

JARDUKETAK (ZERBITZUAK ETA PROGRAMA PILOTUAK)

GAZTEEN BIZI-IBILBIDEI LAGUNTZEKO AURREZ AURREKO ZERBITZUA (GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO EUSKAL SAREA)

Doako zerbitzu pilotua, sarbide unibertsalekoa eta pertsoneri edo pertsona-taldeei aurrez aurreko arreta ematekoa, Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarean integratua. Zerbitzu horrek informazioa, orientazioa, bitartekotza, aholkularitza eta laguntza integral eta pertsonalizatua eskaintzen dizkie 18 eta 34 urte bitarteko pertsoneri, banaka eta kolektiboki, emantzipaziora bideratutako ibilbideetan, hau da, familia-etxetik irteteko, mugikortasun-proiektu bat edo, bereziki, migrazio-proiektu bat duten pertsonak barne.

Eusko Jaurlaritzaren GAZ (Gazte Ibilbideak Martxan Zerbitzua) zerbitzuarekin konektatuta egongo da. Zerbitzu horren barruan sartzen dira online zerbitzua, gazteen emantzipazioaren inguruko espazio birtuala eta AMESLARIAK programa, DAGen integratua, gazteak mugikortasun- eta migrazio-proiektuekin erakartzea, itzultzea, atxikitzea eta lotzea sustatzeko, 2/2022 Legearen 23. artikularekin bat etorri¹.

Gazteria-sistemako beste zerbitzu batzuekin konektatuko da, KONTADORES-en daudenak barne, eta, bereziki, gazte-informazioko zerbitzuekin, 2/2022 Legearen 23. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

NORI ZUZENTZEN ZAIO: Donostian bizi, ikasten, lan egiten edo lan egin nahi duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsoneri, edozein dela ere haien administrazio-egoera.

PRESTAZIOAK: informazioa, orientazioa, bitartekaritza, aholkularitza eta laguntza pertsonalizatua (ikus definizioak eranskinetan). Ez da izapiderik egiten, eta ez da ordezten beste sistema batzuen informazio edo orientazio espezializatua.

JARDUERA-EREMUAK: prestakuntza, enplegua, ekintzailtza, etxebizitza, gizarte-baliabideak eta integrazioarako baliabideak, autonomiarako eskumenak, mugikortasuna, itzulera barne... Emantzipazioaren arloko premiak eta eskaerak ezagutzeak eta aztertzeak aukera emango du hobekuntzak eta ekimen berriak bultzatzeko eta erakunde eskudunei hobekuntzak proposatzeko.

HELBURU OROKORRAK: Donostian emantzipatutako gazteen tasa handitzea eta emantzipatzeko batez besteko adina murriztea, faktore objektiboetan (informazioa) eta subjektiboetan (ahalduntze pertsonala eta emantzipaziorako trebetasunak eskuratzea) eraginez.

¹ AMESLARIAK programak honako hauek sustatuko ditu gazteentzat eta, hala badagokio, familientzat:

– Gazteek mugikortasun-programetan parte hartzea, EAerekiko loturari eutsiz eta, ahal bada, haien parte-hartzea alde zehaztutako proiektu batekin lotuz (atxikimendua).

– Gazteek migrazio-proiektuak prestatzea beren bizi-proiektua Euskadin garatzeko, aurrera eginez eta lagunduz (erakarpena).

– EAera itzuli naiz Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo luzaroan egon ondoren mugikortasun- edo migrazio- proiektu batengatik, hemen bizi-proiektuari berriro ekiteko (itzulera).

Edo interesak, gaitasunak, sareak... EAEn edo bizi den herrialdean eragin ekonomikoa edo soziala duten gizarte-, enpresa- edo erakunde-ekimenekiko lotura, EAEn bizi izan diren euskaldunak zein atzerritarrek izan (konexioa).

HELBURU OPERATIBOAK: gazteek informazio eguneratua, hurbilekoa eta kalitatezkoa izatea aipatutako eremuetan, beren beharretara egokitzen diren baliabide erabilgarriak eskura izatea, bai eta beste laguntza pertsonalizatu batzuk ere (orientazioa, bitartekaritza, aholkularitza eta laguntza), jarraituak eta proaktiboak, ibilbideak diseinatzeko eta hedatzeko.

EZAUGARRI OROKORRAK: doako eta sarbide unibertsaleko zerbitzua, erabiltzaileen inguruabarrak edozein direla ere, eta, beraz, profil desberdinak (adina, generoa, jatorria...) eta askotariko egoerak dituzten gazteei egokitu: familia-laguntzako sarerik gabe, emigratuak eta itzultze-prozesuetan daudenak, jatorrizko lekura itzuli direnak, etab.

Eskaintzen diren arloetako prestazioetan eta jardun-eremuetan prestakuntza espezifikoa duten langileek emango dute zerbitzua. Aurrez aurreko zerbitzua da, beste komunikazio-kanal batzuekin osatzen da (kanal anitzekoa), eta Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarearekin, GAZ zerbitzuarekin eta AMESLARIAK programarekin antolatzen da:

– Gazteria Zuzendaritzak online zerbitzu bat eta gune birtual bat (webgunea eta APPa) jarriko ditu gazteen eskura, emantzipazioaren arloko baliabide interesgarriei buruzko informazio eguneratua eskaintzeko eta gazteen eta gaian interesa duten beste eragile batzuen arteko interakzioa sustatzeko.

– Donostiako Udaleko Gazteria Arloak goizez eta/edo arratsaldean emango du zerbitzua, asteartetik ostiralera. Zerbitzua KONTADORES-en emango da.

Astearte eta ostegunetan: 11:30-13:30 /17:30-20: 30.

Asteazken eta ostiraletan: 17:30-20:30.

– Bi erakundeek telefonoa, posta elektronikoa edo sare sozialak komunikazio-kanal gisa gaitu ahal izango dituzte. Udalaren kasuan, kanal horiek osagarriak izango dira.

ALDERDIEN KONPROMISOAK (zerbitzuarenak eta programarenak).

Eusko Jaurlaritzari dagokio:

– Espazio birtualeko (webgunea eta APPa) informazioa diseinatzea, abian jartzea, mantentzea eta elikatzea, Donostiako Udalarekin edukiak trukatur.

– Taldeen prestakuntzan parte hartzea, GAZ – AMESLARIAK taldearekin partekatutako prestakuntza- eta gainbegiratze-ekintzen bidez.

– Zerbitzuaren diseinuan, lehen instalazioan, programazioan eta komunikazioan laguntzea.

– Programaziotik eratorritako gastuak, I. eranskinean zehaztutako zenbatekoen arabera.

Donostiako Udalari dagokio:

– Aurrez aurreko zerbitzua kontratatzea. Udaleko Gazteria Zerbitzuak gainbegiratu du zerbitzu hori.

– Zerbitzuaren erabiltzaileen sarbidea kudeatzea.

– Zerbitzuaren eskura jartzea behar den ekipamendua, eta, bereziki:

– Arreta pertsonalizatuko gela bat. Espazio bat prestatuko da informazioa, orientazioa, bitartekaritza, aholkularitza eta laguntza pertsonalizatua emateaz arduratuko diren langileentzat, bai eta dokumentazioa, plangintza, koordinazioa, talde-jardueren sustapena, tailerrak eta abar kudeatzeaz arduratuko diren langileentzat ere. Bulegoak funtzio horiek garatzeko behar diren altzariak eta ekipamendu teknikoak izango ditu.

– Kontsultarako gune bat, erabiltzaile bakoitzak bere kontsultak egin ahal izan ditzan, behar diren materialekin eta Interneterako doako sarbidearekin. Kontratutako langileek espazio hori erabiltzen lagunduko dute.

– Bilerak, hitzaldiak eta zerbitzuarekin lotutako talde-jarduerak edo tailerrak egiteko gela bat.

Zerbitzuaren esku jartzen diren instalazioek irisgarritasun-arauak beteko dituzte, eta beren funtzioa betetzeko behar duten ekipamendua izango dute.

– Kontsumo elektrikotik, klimatizaziotik, telefoniatik, internetetik eta garbiketarik eratorritako gastu arruntak, zerbitzuan diharduten langileen ordui dagozkienak, I. eranskinean zehaztutako zenbatekoen arabera.

– Programaziotik eratorritako gastuak, I. eranskinean zehaztutako zenbatekoen arabera.

Bi aldeen kontura izango da aurrez aurreko arreta-zerbitzua online zerbitzuarekin eta espazio birtualarekin konektatzea, bai eta AMESLARIAK programarekin ere. Bi aldeek konpromisoa hartzen dute, halaber, zerbitzua hobetzeko estrategia komunak diseinatzeko behar den informazioa partekatzeke.

MARTX UP

Donostiako 18 eta 30 urte bitarteko gazteen ideiak, erronkak eta proiektuak sustatzeko eta abian jartzeko programa. Gazteekin lan egiten da, informazioa eta baliabideak eskainiz eta proiektuak dinamizatzen lagunduz.

NORENTZAT DA?

18 eta 30 urte bitarteko gazteek parte har dezakete (biak barne). Ideia onartu eta lantaldea sortu ondoren, proiektuak prestakuntza- eta garapen-fasera igaroko dira.

Parte-hartzaileen jatorriari dagokionez, gutxienez taldeko kide bat Donostiakoa izan beharko da. Parte-hartzaileen rolari dagokionez, jarrera aktiboak, parte hartzeak, eraikitzaileak, paritarioak eta euskararen aldekoak hartuko dira kontuan.

JARDUERA-EREMUAK

Ekintza-eremua librea eta askotarikoa da, eta mota guztietako proiektuak hartzen ditu barnean, betiere ez badituzte diskriminatzen generoa, arraza edo beste arrazoi batzuegatik, eta ez badituzte indarkeria- eta arbuio-jarrerak eta antzekoak sustatzen.

Proiektuek bi ezaugarri bete beharko dituzte: beren ekintza-eremuak Donostian kokatuta egon behar du, etorkizunean beste eskualde batzuetan gara daitezkeen alde batera utzita, eta hiria hobetzera eta herritarren ongizatera bideratuta egon behar dute.

HELBURU OROKORRAK

Gazteen gaitasun sortzailea eta berritzailea sustatzea.

Donostiako gazteak estimulatzea, gizartean, kulturen eta ekonomian eragin eta modu aktiboan jardun dezaten.

Hiriko ekonomia, kultura eta gizarte-eskaintza aberastea gazteen proiektu berritzaileekin.

HELBURU OPERATIBOAK

Prestakuntza, aholkularitza eta baliabideak eskaintzea gazteei hiriko eragile aktibo eta sortzaile bihurtzen laguntzeko.

Kontaktu-sare bat sortzea, etorkizunean gazteentzat baliagarria izango dena, eta baliabide ona izatea esperientzia berriak bizitzeko.

Komunikabideen inplikazioa lortzea.

EZAUGARRI OROKORRAK

Aukeratzen diren proiektuen sustatzaileek bost prestakuntza-saio jasoko dituzte eta, saio batetik bestera, gazteek tutoretza-prestakuntzak izango dituzte. Hilabeteetako prestakuntza horretan, gazteek beren proiektuak definituko dituzte, ekintza-plan bat egingo dute eta gizarteratze-prozesuari ekingo diote. Era berean, bukatutako eta zehaztutako proiektuek udalaren laguntza jasoko dute, haien ahalmen ekonomikoaren arabera.

ALDERDIEN KONPROMISOAK

Eusko Jaurlaritzaren kontura izango dira:

– Donostiako Udalarekin lankidetzan aritzea, proiektua zabaltzeko eta gazteen ekimenak babesteko.

– Programaziotik eratorritako gastuak, I. eranskinean zehaztutako zenbatekoen arabera, proiektuen laguntza teknikorako, prestakuntzarako, komunikaziorako eta zuzkidura ekonomikorako.

Donostiako Udalaren kontura izango dira:

– Urteko deialdiak eta ideiak hautatzeko prozesuak antolatzea.

– Proiektuak hautatzea, beharrak identifikatzea eta hasierako aholkularitza ematea.

– Prestakuntza kontratatzeke kudeaketa.

– Laguntza emateko eta ekimena gauzatzeko baliabideak hornitzeko kudeaketa: zuzkidura ekonomikoa, bitartekaritza baimenen, lokalen, ekipoen eta abarren kudeaketan.

• Tokiko gazteria-sistema osatzen duten zerbitzuak kontratatzea. Zerbitzu horiek Gazteria Sailaren ikuskaritzapean jardungo dute.

• Pertsonen zerbitzura duten sarbidea kudeatzea.

• Ezartzen diren zerbitzuen edo espazioen eskura jartzea kasu bakoitzean horiek erabiltzeko eta dinamizatzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak.

• Zerbitzuen eskura jartzen diren instalazioek irisgarritasun-arauak beteko dituzte, eta beren funtzioa betetzeko behar duten ekipamendua izango dute. Udalaren kontura izango dira kontsumo elektrikoaren, klimatizazioaren, telefoniaren, wifiaren edo garbiketaren ohiko gastuak.

• Tokiko Gazteria Sistemako zerbitzuak, espazioak eta programak gazteentzako zerbitzuen tokiko sareko gainerako zerbitzuekin konektatzea, bai eta gazteen emantzipazio- eta sustapen-prozesuetan eragina duten udaleko arlo eta sailekin ere.

Bi alderdiek konpromisoa hartzen dute zerbitzua hobetzeko estrategia komunak diseinatzeko behar den informazioa partekatzeke.

LABORATEGIAK

Kultura-edukiaz gain, gazteen interesak, beharrak eta kezkek ere kontuan hartuta proposatzen dira.

Laborategi horietan formatu desberdinak onartzen dira: ikastaroak, hitzaldiak, bilerak, espazioaren erabilera desberdinak, eta talde desberdinek proposatzen dituzten jarduera anitzetarako irekita egongo dira.

Laborategietan, gai zehatzei buruzko prestakuntza emateaz gain, gazteen arteko harremanak eta proiektuak sustatzen dira, eta dinamika berezietarako baliabideak eskaintzen dira.

Laborategi bakoitzak zerbitzatzen dituen gazteen premia espezifikoetara egokitu behar du, eta emantzipazio-prozesuan eta helduarora igarotzeko prozesu independentean ahalduzko diseinatuta egon behar du.

Bizimodu independenterako trebetasunak garatzeko laborategiak.

Helburu orokorra: gazteen autonomia sustatzea eta bizitza independenterako prestatzea.

Helburu operatiboak: finantza-trebetasunak, etxeko trebetasunak, helburuen plangintza eta erabakiak hartzen irakastea.

Jardun-eremua: eguneroko bizitzarako oinarritzko trebetasunak garatzea.

Ezaugarri orokorrak: tailer praktikoak, banakako aholkularitza.

Garapen sozial eta komunitarioko laborategiak.

Helburu orokorra: gazteak komunitatean inplikatzeko eta haien parte-hartze aktiboa sustatzea.

Helburu operatiboak: boluntariora sustatzea, gazteen lidergoa, proiektu komunitarioetan parte hartzea.

Jardun-eremua: parte-hartze zibikoa eta komunitarioa.

Ezaugarri orokorrak: zerbitzu komunitarioko proiektuak, lidergoari buruzko prestakuntza, gizartearentzako ekitaldiak eta jarduerak.

Enplegarritasunari buruzko laborategiak.

Helburu orokorra: gazteen enplegu-aukerak hobetzea.

Helburu operatiboak: enplegua bilatzeko trebetasunak garatzea, curriculum prestatzea, elkarrizketa-trebetasunak.

Jardun-eremua: gaikuntza eta lan-orientazioa.

Ezaugarri orokorrak: garapen profesionaleko tailerrak, enplegua bilatzeko baliabideetarako sarbidea, bokazio-aholkularitza.

Osasun- eta ongizate-laborategiak.

Helburu orokorra: gazteen osasun fisikoa eta mentala sustatzea.

Helburu operatiboak: ohitura osasungarriak sustatzea, laguntza psikologikoa ematea, gaixotasunen prebentzioari buruz hezteak.

Jarduera-eremua: osasun fisikoa eta mentala.

Ezaugarri orokorrak: yoga-eskolak, estresa kudeatzeko tailerrak, aholkularitza-zerbitzuak, osasunari buruzko hitzaldiak.

NORENTZAT DA?

18 eta 30 urte bitarteko gazteak.

EREMUA ETA JARDUERA

Prestakuntza, kultura eta arteak, partaidetza zibikoa eta komunitarioa, bizitza independenterako trebetasunak garatzea, osasun fisikoa eta mentala, garapen pertsonala, trebetasun digitalak, enplegarritasuna eta ekintzailtza.

HELBURU OROKORRAK

Gazteen interes eta zaletasunetatik sortzen diren diziplina artistiko eta kulturalen eta jardueren aniztasuna sustatzea.

Emantzipazio-prozesuan eta heldu-bizitza independenterako trantsizioan ahalduntzea.

Herritartasun aktiboa sustatzea.

HELBURU OPERATIBOAK

Prestakuntza, kultura eta arteak.

Parte-hartzea eta sareen sorrera bultzatzea.

Osasun fisikoa eta mentala eta garapen pertsonala hobetzeko tresnak eskaintzea.

Trebetasun digitalak irakastea.

Ekintzailtza sustatzea.

EZAUGARRI OROKORRAK

Ikastaro bakoitzean laborategiak urteko bi sasoitan: neguan eta udaberrian. Neguan, eskaintza azaroa eta urtarrila bitartean egingo da. Neguan, martxoa eta maiatza bitartean.

Laborategi horiek areto desberdinetan emango dira, bakoitzaren formatuaren arabera (areto nagusia, tailerra, areto digitala...).

Iraupen laburrekoak eta formatu intentsibokoak dira.

ALDERDIEN KONPROMISOAK

Eusko Jaurlaritzaren kontura izango dira:

– Donostiako Udalarekin lankidetzan aritzea, proiektua zabaltzeko eta gazteen ekimenak babesteko.

– Programaziotik eratorritako gastuak, I. eranskinean zehaztutako zenbatekoen arabera, programazio espezifiko bat garatu eta gauzatzeko eta ekipamendua egokitzeko.

Donostiako Udalaren kontura izango dira:

- Urteko deialdiak eta proposamenak hautatzeko prozesuak antolatzea.
- Eskaintza diseinatu, gauzatu eta ebaluatzea, I. eranskinean zehaztutako zenbatekoen arabera.
- Zabalkundea
- Ikasleen matrikulazioa, jardueraren kontrola eta jarraipena.
- Ekipamendua.

LAGAPENAK

Kontadoreek gazteen eskura jartzen ditu espazioa, materialak eta beste baliabide batzuk, eta erabiltzaileek adostuko dute kasu bakoitzean zer eskaini zerbitzu horren ordain gisa.

PARTE-HARTZEA

Programazioan beste eragile batzuek antolatutako eta sustatutako ekimenak sartuko dira, bai eta gazte-kolektiboek proposatutako ekimenen zabalkundea sustatzen dutenak ere, eta, gainera, jarraipena emango zaio EGKrekiko lankidetzari, sinatutako hitzarmenaren esparruan.

Gainera, prozesu espezifiko baten bidez programazioaren diseinuan parte hartzeko aukera emango zaie gazteei.

NORENTZAT DA?

18 eta 30 urte bitarteko gazteak.

JARDUERA-EREMUA

Emantzipazioa, etxebizitza eskuratzea, enplegarritasuna.

HELBURU OROKORRAK

Eragile estrategikoekin lankidetzak-loturak ezartzea eta herritartasun aktiboa sustatzea.

HELBURU OPERATIBOAK

Dibulgazio-, kontzientziazio-, diagnostiko- edo partaidetza-proiektuak garatzea, gazteen eskaerei eta beharrei erantzuteko.

EZAUGARRI OROKORRAK

Lehenik eta behin, lankidetzan lan egiten jarraitzeko aukerak aztertuko dira, eta lankidetzak-proiektuak identifikatuko dira. Horretarako, urte hasieran hainbat koordinazio-bilera egingo dira. Jarraian, batera garatzen diren proiektuetan lan egingo da.

Aurten, aurreko bi urteetan hasitako etxebizitzaren inguruko lanarekin jarraitzeko asmoa dugu.

2018an, EGK-k, Eusko Jaurlaritzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Donostiako Udalarekin batera, World Café #GaztEmancipación antolatu zuen, Donostiako gazteen emantzipazio-prozesuaren egoera eta premiak identifikatzeko.

Gaiak Donostiako gazteen artean sortzen duen interesa ikusita, lan-ildo berean jarraitzeko helburuarekin, 2019an Milaka Elkarbizitza Hiriburua antolatu zen. Horretarako, etxebizitzaren gaia ardatz hartuta, gazteen emantzipazio-ereduak mahaigaineratu ziren, eragileen (gazteak, teknikariak eta politikariak) iritzia jasotzeko eta ikuspuntuak partekatzeko.

2020an, ildo beretik, etxebizitzari eta generoari buruzko ekitaldi bat antolatu zen. Zutabeak Arrakalatzen mahai-ingurua.

Etxebizitzaren gaia genero-ikuspegitik aztertu zen, familia-ereduak eta etxebizitzaren egituran duten eragina aztertuz eta espazioak emakume gazteentzat seguruak ote diren hausnartuz.

2020ko lanarekin jarraituz, 2021ean zehar, eta gai horien inguruan lan eginez, Zutabe Arrakalatzen proiektuaren asmoa izan zen gazteei tresnak ematea, etxebizitza genero-ikuspegitik begiratzeko, bizikidetzak aukera desberdinetara egokitu daitezkeen etxebizitzak identifikatzeko eta etxebizitzak irizpide horien arabera baloratzeko.

2022an, gazteen emantzipazioan dagoen genero-arrakalari buruzko jardunaldi batzuk egin ziren: «Etxeko Giltza Moreak. Etxebizitza sarbidea ikuspegi feministatik».

2025ean, gazteen artean belaunaldi arteko etxebizitza-esperientziak eta -proiektuak lantzea eta ezagutaraztea da proiektuaren helburua.

ALDERDIEN KONPROMISOAK

Eusko Jaurlaritzaren kontura izango dira:

- Donostiako Udalarekin lankidetzan aritzea, proiektua zabaltzeko eta gazteen ekimenak babesteko.
- Programaziotik eratorritako gastuak, I. eranskinean zehaztutako zenbatekoen arabera, hitzarmenaren zuzkidura ekonomikorako eta partaidetza-prozesu bat garatzeko.

Donostiako Udalaren kontura izango dira:

- EGKrekin lankidetzak-hitzarmen bat sinatzea.
- Proiektuak diseinatzen eta gauzatzen laguntzea.
- Ekimenak garatzeko, baimenak, lokalak, taldeak eta abar kudeatzeko baliabideak ematea.

III. ERANSKINA

PRESTAZIOAK

– Informazioa: profesional batek ematea gazte bati, emantzipatzeko dituen aukerak eta egin nahi duen ibilbidean aurrera egiteko eskura dituen baliabideak edo laguntzak ezagut ditzan.

– Orientazioa: profesional batek gazte bati eskaintzen dion prestazioa, emantzipaziora eta mugikortasunera bideratutako bizi-ibilbideak diseinatzen eta kontrastatzen laguntzeko, arretaz entzunez, gazteak izan nahi duen agertokiak diseinatzen lagunduz eta kasu bakoitzean horiek gauzatzeko ekintza-ikastaro bideragarriak identifikatuz.

– Kontua da gazteak helduarora laguntzea emantzipazio-ibilbide bat planifikatu ahal izateko, eta, ahal bada, beren nahietara, eskura dituzten baliabideetara, aldez aurreko ibilbidera eta eskura dituzten aukeretara egokitutako mugikortasun bat planifikatu ahal izateko. Horretarako, taldeko kide batzuek gaitasun espezifikoa izango dituzte mugikortasun-proiektuak dituzten pertsoneri laguntzeko.

– Bitartekaritza: profesional batek gazte bati egindako prestazioa, aurreikusitako ibilbidea garatzeko dauden baliabide edo laguntzen konexioa errazteko.

– Helburua da laguntza hori emateko kontuan hartzea gaztearen autonomiaren eta gaitasunen garapena maximizatzeko printzipioa. Beraz, ez da inoiz egingo gazteak bere kabuz egin dezakeena edo egin behar duena. Horregatik, adibidez, zerbitzu horrek ez du barne hartzen gazteak bere izenean egin behar dituen izapideak egitea, baina bai laguntzen dioten baliabideetara bideratzea edo sartzeko baldintzak eta prozedurak ulertzen laguntzea, dagokion administrazio-prozedura inoiz oztopatu gabe. Ez da leihatila bakarra, ezta administrazioarekin komunikatzeko kanal bat ere.

– Aholkularitza: profesional batek gazte bati ematen dion prestazioa da, hau da, arlo jakin batean ezagutza eta konpetentziak dituzten kontsulta espezifikoei erantzutea, edo, batzuetan, profesional bati laguntza eskatzea edo beste espezializazio batekin kontrastatzea. Emantzipazioarekin eta mugikortasunarekin lotutako aholkularitza juridikoa ere eskainiko du zerbitzu horrek. Aholkularitza-lan horretan ez da sartzen legezko prozesu edo prozeduretan laguntzea. Idatziz egindako kontsultei baino ez zaie erantzuten.

– Lagun egitea: profesional batek gazte bati ematen dion prestazioa da, lehen aipatutako prestazio-paketea modu jarraituan eta proaktiboan eskaintzean eta haren ibilbideen jarraipen proaktiboa egitean datzana.